

Diving in Aegean history



ORI FILMS



FILM DOKUMENTALA
IKASLEEKIN IKUSI AURRETIK
IRAKASLEAK IRAKURTZEKO



FILM-DOKUMENTALA IKUSI
AURRETIK IKASLEEKIN
EGITEKO LANA



FILM DOKUMENTALA IKUSI
ONDOREN IKASGELAN
EGITEKO LANA



FILM DOKUMENTALA
IKASLEEKIN IKUSI AURRETIK
IRAKASLEAK IRAKURTZEKO



Diving in Aegean history

FITXA TEKNIKOA

Zuzendaritza: **Sterios Apostolopoulos**
Produkzioa: **Sterios Apostolopoulos**
Hizkuntza: Grekera. Subt. Euskara
Grezia. 2023, 12'


SINOPSISIA



Filma Kasos uhartearen inguruko urpeko lehen azterketa arkeologiko sistematikoa jarraitzen du. Xanthi Argyris itsas arkeologoak, arkeologo, zientzialari eta teknikari talde bat zuzentzen du. Urpean igeri ari direnak, antzinateko itsasontzi hondoratuen bila

dabiltza, iraganeko merkatal bideak berreskuratzeke asmoz. Hondoratu ziren hamar itsasontzi aurkitu dituzte. 220 urperaketa eta 320 ordu ur azpian igaro ondoren, 108 aurkikuntza arkeologiko berreskuratu dira.

Ariketa honen baloreak: Iraganaren garrantzia agerian uztea, metodologia zientifikoak nola funtzionatzen duten zehaztea, urazpiko arkeologia zer den ikustea eta azkenik antzinateko historiaren inguruko edukiak lantzea da.



ANTZINATEKO GREZIA, FENIZIARRAK ETA ERROMAREN INGURUKO OHAR BATZUK

Dokumentalean agertzen zaigun irla, Kasos-eko uhartea da hain zuzen ere, Mediterraneoaren ekialdean dagoena, Egeo itsasoaren hego ekialdean, Rodas irlatik hurbil eta Kreta-ren ekialdean ere bai. Aintzinatean, Lebantea, Egipto eta Grezia kontinentalak konektatzen zituen, merkatal bideen bitartez. Greziako poleis-ak ipar eta mendebaldean zabaltzen ziren, Kasos bidegurutze bat izan zen ipar, ekialde, mendebalde eta hegoaldearen artean. Horregatik, lekuak garrantzi handia izan du eta historikoki, itsas tradizio handiko lurra izan da.



Itsaso beltza Greziar kolonietaz beterik zegoen, zeinetatik garia eta urrea Sarmata/Eszitei erosita, besteak beste, hegoaldera eramaten zen Atenasen saltzeko adibidez. Kasos-eko irlak, greziar Aro Arkaiko (776-499 k.a.) eta Aro Klasikoko (499-323 k.a.) egipziar trafikoa jasotzen zuen hegoaldetik, greziar merkatal bideak mendebaldetik, eta feniziar jatorrizkoak ekialdean. Bestalde, Grezia kontinentalarekin eta iparraldeko koloniek kontaktua zeukan Kasos-eko uharteak, gerora

Erromatarren Errepublika (513-27 a.c.) eta Erromatar Inperioaren garaian (27 k.a.-476 k.o.) zehar zeharkatua. Eta noski aro berrian zehar ere bai aktibitatea egon zen Kasos irlatik pasatu zena.

Dokumentalak **urazpiko arkeologoe**k erabiltzen duten **metodologia** erakusten digu, teknika berriak erabiliz, prozesu eta erregistro arkeologikoa zehaztuz eta identifikazio metodoak nolakoak diren erakutsiz.

Dokumentaleko urazpiko arkeologoe

aurkitzen dituzten zeramika zatiei esker, tipologiak ezarriko dituzte, hauekin Kasos irlako **garai ezberdinetan zehar topatu diren aztarnen mapa bat** sortzen joan dira, objektu zeramikoak eta merkatal bideen inguruan berri ematen dutenak. Tipologia ezberdinetako anforei esker, erromatar anforak, feniziarrek edo greziarrek diren identifikatu dezakete, datazio erlatibo bat emanez hondoratutako aztarnei eta itsasontziaren jatorriaren inguruan informazioa lortuz.




Greziar anfora bat Corcyrako estilokoa



Erromatar anfora batzuk, Dressel 1B estilikoa



NOLAKOAK ZIREN ITSASONTZI GREKOAK, FENIZIARRAK ETA ERROMATARRAK?



k.a. XIV. mendea), Levantiar-Siriar ontziak, brontze garaikoak, proto-feniziarren herria kontsideratuak. Honen ontzietako bat Uluburun da, K.a. 1305 .
Iturria: Shelley Wachmann, 2019; 6; Georges Daressy, 1895; 294.

Feniziarrei esker nabigazioan aurrera egin zen eraikuntza teknika berri batzuekin, zeinak greziar zein erromatarrek erabili zituzten. Egipziarrak aitzindariak izan baziren ere, itsas eraikuntzari dagokionez, nagusiki **feniziar-grekoen tradizioa Mediterraneo itsasoan zabaldu zen aintzinatetik**. Kristo aurreko 1300. urtetik, kristo ondorengoko 400 urtera aldaketa nabarmenak egon ziren ontzietan, eta hauetariko batzuk arkeologiak topatu ditu, Uluburun feniziarra, Kyrenia greziarra eta Madrage de Giens erromatarra bezalakoak.



Kyrenia itsasontziaren aztarna arkeologikoak, K.a. 294 urtekoa.



Kyrenia II, Greziar itsasontzia, interpretazio ondoren egindako berreraikuntza,




Madrague de Giens, K.a. 75-60 urtekoa, erromatar estiloko merkatal ontzia, 40 metroko luzerakoa.

DENDROKRONOLOGIA-REN METODOA

Egurraren bitartez itsasontziak noiz egin ziren jakin daiteke.

Datazio mota honi dendrokronologia esaten zaio, (dendros: zuhaitza; kronos, denbora).

Dendrokronologiaren bidez zuhaitzen hazkundeak sortzen dituzten eraztunen lodiera neurtzen da. Eraztunak urtero hazten dira, eta zuhaitzen eraztunen lodierak klimak, euriak eta espezieak baldintzatuak dira. Egur laginak gainjarrita, patroik klimatikoak erakusten dituzte, urteka. Honek sekuentzia bat sortzen du, urtero zehaztua.



Zuhaitzen eraztunak hazkunde klimatiko bat garatzen dute espezie eta klimaren arabera. Eraztunik gabeko zuhaitzak daudenez, bakarrik espezie kaduzifolioak ikertzeko balio du dendrokronologiak. Zuhaitz diferenteen laginak hartzen dira, bihotzetik kanpora hazkunde osoa hartzen duenak. Hauek alderatzean, denbora lerro klimatiko batean, urteak identifikatu ahal dira sekuentzia bat sortuz, klima eta zonaldeak identifikagarriak direnak, aritzaren espeziea erabiliz adibidez.





FILM-DOKUMENTALA IKUSI
AURRETIK IKASLEEKIN
EGITEKO LANA



KOKAPEN GEOGRAFIKOA NON DAGO GREZIA? KASOS-EKO IRLA NON DAGO GREZIAN?

URAZPIKO ARKEOLOGIARI BURUZKO OHAR BATZUK

Hurrengo dokumentalak urazpiko arkeologiako proiektu baten garapena azaltzen du, helburuak, ikerketa eta metodologia azalduz.

Uharte bateko kostaldeko lau urtetan zeharreko kanpainia arkeologikoen inguruko ikerketa erakusten digu, zehatz meatz Kasos uharteari buruz, Rodas, eta Kreta bitartean dagoena Egeo itsasoan. Urazpiko arkeologoek badakite uharteak tradizio handia zuela itsasoko nabigazioan eta ontzigintzan aintzinatetik. Honexegatik **proiektuaren helburua nabigazio merkatal bideak ikertzea izan da**, arkeologiaren bitartez hauek berreskuratuz.



ZERTARAKO IKERTU NAHI DUTE KASOS-EKO IRLAN DAGOEN ITSASOA?

Hondoratutako itsasontziek utzi dituzten arrasto eta hauek kontatzen diguten historia berreskuratzeko.



Zertan datza urazpiko arkeologia?

Lurreko arkeologoen antzera, iraganeko aztarnak lurretik atera eta hauek dokumentatzea, baino bakarrik diferentzia handi batekin; urazpiko arkeologoak arnasteko eta urazpian ez hozteko trajea eraman behar dute.



AINTZINATEKO GREZIA

KRONOLOGIA

- Grezia arkaikoa: k.a. 776-499
- Grezia Klasikoa: k.a. 499-323

Greziako geografia ez zen aldatu antzinatean, eta lurralde menditsua izanik, itsaso bitarteko konexioa garrantzitsua bihurtu zen garai horietan. **Nagusiki, greziako gorengoan aro klasikoan, itsasoaren bidezko merkataritza oso garrantzitsua izan zen.** Grezia klasikoan demokrazia existitu zen, polis greko ezberdinen arteko gerra batzuekin, Esparta eta Atenas artekoa.

ERROMATAR ERREPUBLIKA ETA INPERIOA

- Erromatar errepublika: K.a. 513-27
- Erromatar Inperioa: k.a. 27- k.o. 476

Greziar influentzia eta boterea desagertzen doan heinean, itsasoan Kartagotar/Feniziar merkataria bihurtu ziren potentzia handia, **Errepublikaren garaian zehar Erroma Mediterranearen itsaso inguruko potentziarik handiena bihurtzen da, merkataritza kontrolatuz (Mare Nostrum).** Kartagotarrak suntsitu zituzten hiru Gerra Punikoetan zehar. Barbaroen inbasioekin Mendebaldeko Inperio Erromatarra erori zen arte, 476 urtean.





FILM DOKUMENTALA IKUSI
ONDOREN IKASGELAN
EGITEKO LANA

1. Zer da itsasazpiko arkeologia?
2. Zertan aldatu da zure urazpiko arkeologiari buruzko irudia?
3. Zein lekuan kokatzen da filma?
4. Definitu eta taldeka erabili honako irudiak deskribatzeko zein ariketa eta metodologia erabiltzen diren arkeologian, bai lurrian edo urazpian. (Ondoren arrazoitu eta partekatu zure klasekideen artean beheko galderak kontuan izaten).
 - a. Zer egiten ari dira hemen arkeologoek?
 - b. Zertarako erabiltzen dira teknika hauek?
 - c. Kontserbazioak zertarako balio du zure ustetan?
 - d. Zertarako mantentzen dira objektuak urazpian?
 - e. Zertarako erabiltzen dute GPS-a zure ustez?



Ba al zenekien?



1948an Emile Gagnan eta Yves Jacques Cousteau-k asmatu zuten aqualung sistema, urpekaritza autonomoa egiteko.

5. Hauetariko zein itsasontzi da greziarra? Eta zein ez? (Eztabaidatu eta partekatu irakaslearekin).

A)



B)



B)



D)



6. Egurrezko itsasontziak topatzen dira oxigenorik gabeko lurrazpiko egoeretan, hezetasuna handiarekin. Nola deritzogu fenomeno honi?

- A) Egoera aerobikoa.
- B) Egoera anabolikoa.
- C) Egoera anaerobikoa.
- D) Egoera supersonikoa.

Dokumentalaren parteak landu eta identifikatu:

7. Asmatu ea anfora hau greziarra edo erromatarra den, eta arrazoitu irakaslearekin.

A)



B)



8. Bilatu eta markatu honako irudian non topatu duten anfora? Zertarako balio zuten anforak? Zer garaitakoa da?






Ba al zenekien?

Honor Frost (1917-2010) Txipreko irlan jaioa, Nikosian, emakumezko urazpiko arkeologoa izan zen, Libanon eta beste Mediterraneoko lekuaskotan lan egin zuenak. Bere lanean harrizko aingurak ikertu zituen eta oso marrazkilari ona zen urazpian.

9. Honako garaietako aztarnak topatu dituzte, ordenatu kronologikoki ondoko mapan:

- A) Erromatar garaia
- B) Otomandar garaia
- C) Greziar
- D) Aro Klasikoa.
- E) Aro Garaikidea.
- F) Aro Bizantziarra.
- G) Aro Helenistikoa.

Orain, zertarako balio du arkeologia mapa bat, objektuak ageri direnak? Eman zure iritzia eta azaldu besteei zergatik uste duzun balioa hori dela?



10. Taldeko hausnarketa eta debatea.

- A) Gaur egun iraganetik zer baloratzen duzu? Zure ustez zer baloratu beharko genuke etorkizunean?
- B) Taldeka eztabaidatu iragana ikertzearen inguruan, arkeologiaren erabilpenaren inguruan eta benetako balorea zer den galdetuz. Zer da baloratzeko zoezer?
- C) Eta zuretzat esanahirik al dute iraganeko aztarnek?
- D) Beraz, zergatik uste duzu arkeologiak inpakturik izan dezakeenik iraganeko aztarnategi arkologikoak topatuz? Zertan eragin dezake arkeologiak?
- E) Gaur egungo Kasos-eko irlako jendea eta Antzinaroko greziarrek zer dute amankomunean?
- F) Eta zuk zer daukazu amankomunean Antzinaroko greziarrekin, desberdintasunetaz aparte?
- G) Orain, zertarako balio du arkeologia mapa bat, objektuak ageri direnak? Eman zure iritzia eta azaldu besteei zergatik uste duzun balioa hori dela?
- H) Urazpiko arkeologiaren lana, emaitzak ematen dituenean, dirua ez denez, zein da benetako emaitza?

